

# EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXI

SAN SEBASTIÁN 15 DE JULIO DE 1914

N.º 1108



VICENTE MANTEROLA

# VICENTE MANTEROLA

**J**UAN dan eunkidan esagutu zan iztun azkar eta bikañenetako bat, Donostiyan 1833-<sup>ko</sup> Ilbeltza-ren 22-<sup>an</sup>. Ikatz-kaleko eche batian jayo-tako Manterola zan.

Gazte gaztetandikan esagutzera eman zituben bere azkartasun ta itzetorri neurri gabiak, eta apaiz-egitera irichi baño len, iztunlari trebienak baño trebiago jarraitzen zuben eleiz itsaldietan.

Jakintsuba zan, argiya, pizkorra, ta apaiz egin ta laister Donostiko eskola nagusiyan erakusten zituben jakinduri biderako ikaspen senduak.

Indar-neurtze gogoangarri baten bitartez Gazteiz-en eleiz-buru-ko apaiz nagusi egin zuten, ta an asaldu zan lenguaz gañera argitasunez, eta jakintasunez josiya zegola.

Ontan aukeratu zuben Gipuzkoak bere izenian Madrid-ko Kortietara-<sup>ra</sup> juateko, ta an erlijio donearen alde egin zituben itzaldiak beñere astuko ez diran bezelakuak. Gizon guchi ziran batzar artan Manterola zanaren neurrikuak. Danak aitortu zuten leku artan ikusten etziran bezelako iztun azkar, yayo, bikaña zala.

Ontan, anai arteko guda negargarria sortu zan, ta zegona zegon lekuban utzi ta alde egin biarrian arkitu zan. Atzerrira juantzan ta an argitaratu zituben zenbait liburucho bere alderdiaren alde.

Amaitu zan noizbait ere zorigaiztoko guda, ta biurtu zan Manterola bere jayoerrira. Lenbizi Madrid-ko Done Andres-en eleizako apaiz buru egin zuten. Geruago indar-neurtze bikañetan bere jakinduri berdin gabilia asalduaz, irichi zan apaiz-nagusi izatera lenbizi Malaga-n, geró Sebillan ta Toledo-n azkenik.

Iztunlari trebia zala orduban geyago erakutzi zuben. Manterola-k itzegin biar zubenian mara mara juaten zan jendia eleiza bete arte.

Erri askotan egiten zituben itsaldiak, baña etzuben urterik uzten Alba de Tormes-en Dona Teresa-reri bederatzi urrenien egin gabe. 1891-<sup>garren</sup> urtian juantzan azkeneko bederatzi urrenien itzegitera, ta erri artan, Urrilla-ren 24 il zan, ta an obiratu zuten gipuzkoar gain gañeku-arren gorputza.

Goitu zagun bere izen leñargia.